

XEDAPEN OROKORRAK

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

1250

ERABAKIA, 2013ko otsailaren 14koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluarena, UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuaren Arautegia aldatzeko dena.

UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuaren egungo arautegiak bere 7. artikuluan dioenez, Argitalpen Kontseiluak kide hauek ditu: Argitalpen Zerbitzuari buruzko eskumena duen errektoreordea, buru izango dena; Ikerketaren arloko errektoreordea; eta Euskararen arloko errektoreordea. Proposatzen den aldaketarekin hiru errektoreorderen presentzia mantendu nahi da kontseiluan, Argitalpen Zerbitzuari buruzko eskumena Ikerketaren arloko errektoreordeari edo Euskararen arloko errektoreordeari esleituko balitzaio ere.

Aldaketa hori onartu du Estatutuak eta Arautegiak Garatzeko Batzordeak.

Aurreko guztiak kontuan hartuta, Hedakuntzaren eta Transferentziaren arloko errektoreordearen ekimenez eta idazkari nagusiaren proposamenari jarraikiz, Gobernu Kontseiluak honako hau

ERABAKI DU:

Lehenengoa.– Onartzea UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuaren arautegiko 7. artikularen aldaketa, aurrerantzean hau jasoko duena:

«7. artikulua.– Osaera.

1.– Argitalpen Kontseiluaren buru izango da Argitalpen Zerbitzuari buruzko eskumena eskuordetuta duen errektoreordea.

2.– Beste kide hauek ere izango ditu:

a) Bi errektoreorde:

– Ikerketaren arloko errektoreordea.

– Euskararen arloko errektoreordea.

Aurreko errektoreordeetako baten bat presidentea balitz, errektoreak izendatzen duen beste errektoreorde bat izango da Argitalpen Kontseiluko kidea.

b) Argitalpen Zerbitzuko zuzendaria, buru izango dena, baldin eta eskumena duen errektoreordeak huts egiten badu.

c) Kontseilukideak ondorengo jakintza arloetako bakoitzean diharduten ospe handiko pertsonak izango dira: hiru Arte eta Giza Zientzien arlokoak, bi Zientzien arlokoak, bi Osasunaren Zientzien arlokoak, hiru Gizarte eta Lege Zientzien arlokoak eta bi Ingeniaritza eta Arkitekturaren arlokoak, eta irakasle elebidunen (gaztelania-euskara) eta elebakarren arteko partaidetza orekatua izango da. Dena dela, arlo bakoitzean izan ohi diren argitalpenen heterogeneotasuna ikusita edo zerbitzuaren beharrek honetarako ahokatuko balute, ordezkari bat gehiago izan liteke.

2013ko martxoaren 7a, osteguna

Kontseilukideak errektoreak izendatuko ditu, Argitalpen Zerbitzuari buruzko eskumena duen errektoreordeak hala proposatu eta Gobernu Kontseiluari entzun ondoren. Lau urteko izendapena izango da, baina beste lau urte gehiagoz ere, gehienez, luza liteke.

d) Argitalpen Zerbitzuko burua, idazkari gisa jokatuko duena.»

Bigarrena.– Agintzea UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuaren Arautegia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin, aldaketa sartu ondoren.

Leioa, 2013ko otsailaren 14a.

Errektorea,
IÑAKI GOIRIZELAIA ORDORIKA.

Idazkari nagusia,
JOSÉ LUIS MARTÍN GONZÁLEZ.

ARGITALPEN ZERBITZUKO ARAUDIA

HITZAURREA

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen estatutuetakoz zazpigarren titulua, unibertsitateko kideentzako arreta eta laguntza zerbitzuei buruzkoak, 296. artikuluan dio, bere helburuak hobeto betetzeko, UPV/EHUk interesgarritzat jotzen diren lan zientifiko, tekniko edo artistikoen hedapena lortzera zuzendutako zerbitzuen eskaintza sustatuko duela, besteak beste. Eginkizun hori UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuaren bidez garatzen da.

Aurreko xedapenen arabera, araudi honen helburua UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuaren funtzionamendua, egitura, jarduera eta eginkizunak erregulatzea da.

I. KAPITULUA

IZAERA, XEDEAK ETA EGINKIZUNAK

1. artikulua.– Izaera.

1.– UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua material inprimatu, digital eta ikus-entzunezkoaren nahiz beste euskarren bateko materialaren argitalpena eta baterako argitalpena programatzeaz eta gauzatzeaz arduratzen da, interesgarritzat jotzen diren lan zientifikoak, teknikoak, artistikoak edo bestelakoak zabaltzeko.

2.– Argitalpen Zerbitzua Euskal Herriko Unibertsitatearen argitalpen zigilu bakarra da. Ondorio horietarako, UPV/EHUko sail, ikastegi, institutu, zerbitzu edo bestelako egituraren batek berak ere ezin izango du, ez noizean behin ez sail gisa, liburuak, aldizkari zientifikoak edo argitalpen produktuak UPV/EHUren izendapen, marka, sinbolo edo bestelako nortasun zeinuren baten pean editatu, errektoreorde eskudunak berariaz hala baimendu ezean.

3.– UPV/EHUk araudi honen bidez erregulatzen diren eta Argitalpen Zerbitzuaren estilo liburuan garatzen diren aurkezpen eta ebaluazio prozesuen menpeko argitalpenen kalitate zientifikoa eta irakats kalitatea baino ezin berma dezake.

4.– Argitalpen Zerbitzua ondorengo araudian eta eragiten dioten unibertsitateko gainerako xedapenetan eta xedapen orokorretan oinarrituta erregulatuko da.

2. artikulua.– Helburuak.

Argitalpen Zerbitzuak Euskal Herriko Unibertsitatearen baitan hezkuntza, irakaskuntza, ikerketa eta kultura sustatzen lagundu nahi du argitalpen produkzioaren bidez. Arreta berezia jartzen du euskaraz aurkezten diren materialetan, beste organo batzuek gai honen inguruan izan ditzaketen eskumenei kalterik egin gabe.

3. artikulua.– Eginkizunak.

Argitalpen Zerbitzuak ondorengo eginkizunak ditu:

- a) Lanak edozein eratako euskarritan argitaratzea.
- b) Bere argitalpenak zabaltzea, banatzea, merkaturatzea eta kudeatzea.
- c) UPV/EHUko argitalpenak ustiatzeko eskubideak kudeatzea.

d) Beste unibertsitate eta erakunde ofizial nahiz pribatu batzuekin edozein eratako argitalpenak sustatzea eta trukatzea. Jasotako lanak Unibertsitateko liburutegira bidaliko dira.

e) Erakunde publiko zein pribatuekin batera bi aldeen intereserako diren lanen argitalpena sustatzea.

f) Inprenta zerbitzu azkarra eta erreprodukzio digitaleko zerbitzua mantentzea.

II. KAPITULUA

ZERBITZUAREN EGITURA ETA ORGANOAK

4. artikulua.– Mendekotasuna.

Dituen eginkizunen izaera aintzat hartuta, Argitalpen Zerbitzua errektoreak argitalpen eta hedapen zientifikoko lanak koordinatzeko eta zuzentzeko ahaldundu duen errektoreordetzara atxikita egongo da.

5. artikulua.– Egitura.

Bere helburuak eta eginkizunak betetzeko, Argitalpen Zerbitzua ondorengo organo eta zerbitzuetan egituratuta dago:

1.– Zuzendaritza.

2.– Argitalpen Kontseilua.

3.– Zerbitzu teknikoak eta administraziokoak.

III. KAPITULUA

ARGITALPEN KONTSEILUA

6. artikulua.– Eginkizunak.

Hona hemen Argitalpen Kontseiluaren eginkizunak:

1.– Zerbitzuaren argitalpen politikako ildo orokorrak onartzea.

Erabaki arrazoituaren bidez, argitalpen ildo berriak zabaltzea eta aldizkari zientifikoak barneratzea edo ezabatzea.

2.– Interes akademiko edo komertzialeko argitalpenak sustatzea.

Testu eskuliburuak prestatzea, Unibertsitatearen beraren eta, hala badagokio, beste unibertsitate batzuen lankidetzekin. Euskarazko idazkiei emango zaie lehentasuna merkatuan antzekorik ez dagoenean.

3.– Unibertsitatearen argitalpen jarduera sustatzeko eta hobetzeko ekimen egokiak proposatzea.

7. artikulua.– Osaera.

1.– Argitalpen Kontseiluaren buru izango da Argitalpen Zerbitzuari buruzko eskumena eskuordetuta duen errektoreordea.

2.– Beste kide hauek ere izango ditu:

a) Bi errektoreorde:

– Ikerketaren arloko errektoreordea.

– Euskararen arloko errektoreordea.

Aurreko errektoreordeetako baten bat presidentea balitz, errektoreak izendatzen duen beste errektoreorde bat izango da Argitalpen Kontseiluko kidea.

b) Argitalpen Zerbitzuko zuzendaria, buru izango dena, baldin eta eskumena duen errektoreordeak huts egiten badu.

c) Kontseilukideak ondorengo jakintza arloetako bakoitzean diharduten ospe handiko pertsonak izango dira: hiru Arte eta Giza Zientzien arlokoak, bi Zientzien arlokoak, bi Osasunaren Zientzien arlokoak, hiru Gizarte eta Lege Zientzien arlokoak eta bi Ingeniaritza eta Arkitekturaren arlokoak, eta irakasle elebidunen (gaztelania-euskara) eta elebakarren arteko partaidetza orekatua izango da. Dena dela, arlo bakoitzean izan ohi diren argitalpenen heterogeneotasuna ikusita edo zerbitzuaren beharrek honetarako ahokatuko balute, ordezkari bat gehiago izan liteke.

Kontseilukideak errektoreak izendatuko ditu, Argitalpen Zerbitzuari buruzko eskumena duen errektoreordeak hala proposatu eta Gobernu Kontseiluari entzun ondoren. Lau urteko izendapena izango da, baina beste lau urte gehiagoz ere, gehienez, luza liteke.

d) Argitalpen Zerbitzuko burua, idazkari gisa jokatuko duena.

8. artikulua.– Bilkuretarako eta batzordeetarako deialdia.

1.– Argitalpen Kontseilua gutxienez urtean behin bilduko da, baita, kontseilukideen eskaerak aztertu ondoren, une horretan lehendakaria denak hala erabakiz gero ere.

2.– Deialdi orria eta beharrezko dokumentazioa bitarteko elektronikoez baliatuta bidaliko dira. Bitarteko horiek agiriak jasotzen direla bermatuko dute. Bai deialdi orriak bai dokumentazioak bilera hasi baino, gutxienez, 48 ordu lehenago egon behar dute Argitalpen Kontseiluko pertsonen eskura.

3.– Argitalpen Kontseiluak bertaratzen direnen gehiengo soilaren bidez hartuko ditu erabakiak. Bigarren deialdian, ordu-erdi beranduago, beharrezkoa izango da gutxienez kideen heren bat bertan izatea.

4.– Kontseiluko idazkariak bilkura bakoitzeko akta egingo du eta, bertan, hartutako erabakiak jasoko dira. Akta Kontseiluaren eskura geratuko da, Argitalpen Zerbitzuaren bulegoetan.

5.– Argitalpen Kontseiluak batzordeetan banatuta egingo du lan, bana jakintza esparruko. Batzorde horiek Kontseiluko kideek osatuta egongo dira eta Zerbitzuko zuzendaria izango dute buru.

IV. KAPITULUA

ZERBITZUKO ZUZENDARIA

9. artikulua.– Zuzendaria.

Argitalpen Zerbitzuko zuzendaria errektoreak izendatuko du, Argitalpen Zerbitzuaren gaineko eskumena duen errektoreordeak hala proposatuta, eta Gobernu Kontseiluari horren berri emango zaio.

10. artikulua.– Eginkizunak.

Hona hemen Argitalpen Zerbitzuko zuzendariaren eginkizunak, errektoreorde eskudunak gainbegiratuta:

- a) Argitalpen Zerbitzua Argitalpen Kontseiluak ezarritako arauekin bat etorri zuzentzea.
- b) Lanen argitalpena sustatzea.
- c) Baterako argitalpen eta truke hitzarmenak sinatzea eta deuseztatzea.
- d) Urteko memoria eta aurrekontu proiektua prestatzea eta Zerbitzuari esleitutako aurrekontua kudeatzea.
- e) Argitaratzeko ahalmena handitzeko finantzabideak gehitzera bideratutako gestioak egitea eta, horretarako, urtero premien memoria prestatzea.
- f) Jabetza intelektualeko beste eskubide batzuk erabiltzeko eta eskuratzeko hitzarmenak eta kontratuak sinatzea.
- g) Errektoreordeari jatorrizkoak aurkezteko arauak proposatzea eta horiek izapidetzeko lanak kudeatzea, behar bezala ebaluatzeko, Argitalpen Zerbitzuaren estilo liburuari jarraiki.
- h) Argitalpen Zerbitzuak eskainitako zerbitzuen kalitatea hobetu dadin sustatzea, zerbitzu gutunen arabera.
- i) Araudi honetan aipatzen diren gainerakoak eta Zerbitzuari dagozkion eta berariaz beste organo batzuei eman ez zaizkien bestelako eginkizunak.

V. KAPITULUA

ZERBITZU TEKNIKOAK ETA ADMINISTRAZIOKOAK

11. artikulua.– Zerbitzu teknikoak eta administrazioakoak.

1.– Zuzendariak gainbegiratuta, Zerbitzuko buruak Zerbitzuaren jarduera kudeatzen du eta atxikitako langileak UPV/EHUko lan monografietan ezarritakoaren arabera zuzentzen ditu.

2.– Argitalpen Zerbitzuko zerbitzu teknikoak eta administrazioakoak UPV/EHUko lanpostuen zerrendan jasotakoaren arabera egituratuko dira.

VI. KAPITULUA

ARGITALPENAK

12. artikulua.– Argitalpenen izaera.

1.– UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuko katalogo orokorra, bere antolaketan, zatietan, bildumetan, tituluetan edo bestelako elementuetan, Argitalpen Zerbitzuko liburuak, aldizkariak eta beste produktu batzuk antolatu eta identifikatzeko sistema gisa finkatuko da. Horren konfigurazioa Zerbitzuaren argitalpen ildoaren adierazle nagusia da.

2.– Argitalpen Zerbitzuak ondorengo moduko lanak argitaratzen ditu: monografiak, testu eskuliburuak (unibertsitatekoak eta ez unibertsitatekoak), aldizkariak, sailak eta/edo bildumak, doktorego tesiak eta beste argitalpen batzuk.

UPV/EHUko Argitalpen Funtseko aldizkariak kalitate zientifikoari eta argitalpenen kalitateari lotutako zenbait irizpide finko eta normalizatu bete beharko dituzte eta edukiak kalitateaz arduratuko diren batzordeak izango dituzte. Lan zientifikoak ebaluatu egingo dira eta Argitalpen Zerbitzuaren kalitate irizpideak bete beharko dituzte. UPV/EHUK araudi honetan finkatutako eta estilo liburuak garatutako kalitate baldintzak betetzen dituzten argitalpen guztien kalitate bermeko marka erabiliko du.

3.– 13.3 artikuluan ezarri bezala onartzearen kaltetan izan gabe, Unibertsitateko organo eta egitura ezberdinek sustatutako argitalpenak eurek finantzatuko dituzte. Lanaren interesa aintzat hartuta, Argitalpen Kontseiluak haien finantziazioan parte hartu ahal izango du.

13. artikulua.– Jatorrizkoen aurkezpena eta aukeraketa.

1.– Argitalpen Zerbitzuak unibertsitateko kideen lanak argitaratzen ditu. Lanak independenteak, lankidetzan eginak, kolektiboak, konposatuak edo ondorioztatuak izan daitezke.

2.– Argitalpen modalitate bakoitzean jatorrizkoak aurkezteko arauak ezartzen dutenaren kaltetan izan gabe, oro har, beren lanak UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuan argitaratu nahi dituzten egileek argitaratzeko eskaera bidali behar diote Zerbitzuko zuzendariari. Bertan, datu pertsonalak eta lanaren izenburu osoa adieraziko dute, baita lanaren interes zientifikoa eta merkatuan izan dezakeen eragina ere.

3.– Oro har, Argitalpen Zerbitzuko zuzendariari dagokio jatorrizkoak onartzea edo baztertzea, lanak jorratzen duen jakintza esparruko batzordearen aholkularitzapean, 8.5 artikuluan jasotakoaren arabera eta ezar litezkeen zehaztapenak aintzat hartuta.

4.– Batzordeek Argitalpen Zerbitzuko gainerako kideen nahiz beste aditu batzuen laguntza eskatu ahal izango dute.

5.– Sailen, bildumen eta beste edozein argitalpen zientifikoren kalitatea bermatzeko, batzordeek arlo bakoitzean eskumenak dituzten kanpoko txostengile anonimoei helaraziko dizkiete argitaratzeko aurkeztu diren jatorrizkoak, ebalua ditzaten. Txosten horiek ikusita, dagokion batzordeak lana argitaratu edo baztertu egingo den erabakiko du, horretarako arrazoiak emanda, eta, txostena aldekoa izanez gero, zer argitalpen ildotan barneratuko den ezarriko du.

Eskuliburuak irakats material gisa erabiliko dira eta UPV/EHUko ikasketa planetako batean bildutako irakasgai baten programa ofizialera egokitu beharko dira. Eskuliburuak argitaratzeko, aipatu irakasgai arduratzen den sailaren abal zientifikoa izango da gutxienez.

6.– Lana baztertuz gero, egileak erreklamazioa aurkeztu ahal izango du Argitalpen Kontseiluan eta honek emango du ebazpena. Ebazpen horren aurka gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal izango zaio errektoreorde eskudunari.

7.– Itzulpenen kasuan, Zerbitzuak berak kudeatuko ditu itzulpen eskubideak eta egile edo argitalpen eskubideak, baita beste egile batzuen grafikoak edo irudiak erabiltzearen ondoriozko guztia ere.

8.– UPV/EHUko Euskara Zerbitzuak euskarazko argitalpen guztien hizkuntza kalitatea eta zuzentasuna bermatuko ditu.

14. artikulua.– Estilo liburua.

UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuak estilo liburua prestatuko du eta jatorrizkoak aurkezteko eta ebaluatzeko beharrezko jarraibide guztiak emango ditu. Egileak jarraibide horiei lotuko zaizkie derrigor.

15. artikulua.– Argitalpen kontratuak eta egile eskubideak.

1.– Argitalpen kontratuak Zerbitzuko zuzendariak sinatuko dituzte eta bertako klausuletan egileak lana originala dela bermatuko du.

Zerbitzuko zuzendariak kontratua suntsiarazi ahal izango du egileak kontratuko klausularen bat bete ez duela hautemanetz gero. Hala, lanaren argitalpena eta banaketa etengo du eta horren ale guztiak kenduko ditu.

2.– Egile eskubideak kontratuan ezarritakoaren arabera arautuko dira, jabetza intelektualari buruz indarrean dagoen arautegiarekin bat etorritik.

Eskubideen likidazioa, bidezkoa bada, urtero egingo da eta horren zenbatekoa aurreko urteko salmenten artean jasoko da.

Egile bat baino gehiago egonez gero, kontratuan urteko likidazioak egiteko modua finkatuko da.

16. artikulua.– Finantziazioa.

1.– Argitalpen Zerbitzuak ondorengo baliabideak ditu:

a) Unibertsitateko aurrekontuen konturako ohiko finantziazioa.

b) Hala badagokio, egindako salmentetatik lortutako etekinen ondoriozko finantziazio propioa edo eskaintzen dituen zerbitzuengatik jasotako ordaina.

c) Dirulaguntzen bidez edo erakundeekin oro har egindako hitzarmenen bidez lortutako kanpo finantziazioa, baterako argitalpenak egiteko.

d) Araudi honetako 12.3 artikulua aplikatzearen ondoriozkoak.

2.– Dirulaguntzak jaso edo baterako argitalpenak egiten diren guztietan, hitzarmena sinatuko da dirulaguntza ematen duen erakundearekin eta, bertan, lanari lotutako baldintza ekonomikoak, argitalpenekoak eta banaketakoak ezarriko dira.

3.– Aurrekontuaren likidazioa Argitalpen Zerbitzuko zuzendariak egingo du, errektoreorde eskudunak aurkeztu ondoren.

17. artikulua.– Truke zientifikoa.

Argitalpen Zerbitzuak trukea egingo du egoki irizten dituen unibertsitate edo erakundeekin. Truke berriak ezartzea eta bultzatzea Zerbitzuko zuzendariak erabakiko du. Hala eginez gero, Argitalpen Kontseiluari horien berri emango dio, baita horiekin lotuta sor daitekeen edozein inguruabarren berri ere. Trukea argitalpenen errentagarritasun ekonomikoa aztertzerakoan baloratuko da, bereziki aldizkariei dagokienean.

18. artikulua.– Banaketa komertziala eta gainerako kontratuak.

Banaketa zerbitzuak nahiz beste edozein zerbitzu kontratatzerakoan, baita Argitalpen Zerbitzuaren funtzionamendurako beharrezkoak diren azpiegiturak eta baliabideak kontratatzerakoan ere, oro har Unibertsitaterako ezarritako araubidea bete beharko da.

19. artikulua.– Argitalpenen babesak.

Argitalpen Zerbitzuko zuzendariari dagokio, berariaz, bere lanen lege erregistroa (ISBN, ISSN) eskatzea.

20. artikulua.– Komunikazioa.

Argitalpen Zerbitzuak beharrezko bitartekoak ezarriko ditu edozein eratako iradokizunei eta hobekuntza proposamenei erantzuteko, informazioa trukatzeko eta erabiltzaileekin harremanetan jartzeko, bereziki, unibertsitateko kideekin.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egingo da Gobernu Batzarrak 1993ko martxoaren 12ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez onartu zen Argitalpen Zerbitzuaren araudia.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Xedapen indargabetzailearen kaltetan izan gabe, araudi hau indarrean sartzean argitaratzeko onartu diren lanei aurreko araudia aplikatuko zaie.

AZKEN XEDAPENA

Errektoreorde eskudunak, Argitalpen Kontseiluari entzun ondoren, araudi hau betearazteko eta garatzeko beharrezkoak diren jarraibide guztiak ezarriko ditu, besteak beste, argitalpen ezberdinen araubideari dagozkionak.